

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Beaumont kontseilariak "segurtasun juridikoagatik mugatutako" Hezkuntzako LEP berri bat aurkeztu die sindikatuei

334tik 200era murriztu dira plazak, eta kopuru hori Estatuak aurkeztutako errekurtsoak eragin gabekoak dira

Viernes, 05 de febrero de 2016

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari M^a Jose Beaumont kontseilariak "segurtasun juridikoagatik mugatutako" Hezkuntzako Lan Eskaintza Publikoko proposamen berri bat aurkeztu die gaur goizean Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean zeuden sindikatuei;

proposamen hori egin du Estatuako Abokatutzak kautelaz bertan behera uzteko eskaera eta hark jarritako errekurtsoa ikusi ondoren; kasu honetan, hasiera batean aurreikusitako plazatatik 134ri eragiten die.

Hala, Nafarroako Gobernuak 200 plaza deitzea proposatzen du orain, eta haiek udaberri honetan egin ahalko dira deialdia gainditzen duten oposiziogileek plaza horiek datorren ikasturtean bete ditzaten. Horrenbestez, oposizioak prestatzen ari diren pertsonei "berme eta segurtasuna" ematen zaie. Nolanahi ere, Beaumont kontseilariak azpimarratu duenez, Foru Gobernuak bere argudio juridikoen sendotasunean konfiantza du Estatuak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiari bertan behera uzteko eskaerak aurrera egin ez dezan.

Zehazki, proposamen berriarekin [espezialitateetako 200 plaza](#) deituko dira: haietatik 108 euskaraz eta 92 gaztelaniaz. Gainera, Gobernuak hainbat espezialitatetara bi hizkuntzetan aurkeztu ahal izateko konpromisoa hartu du.

Beaumont kontseilariak aitortu duenez, Funtzio Publikoko Mahai Orokorraren bilera horrekin, Nafarroako Gobernuak "sindikatuei entzun" nahi izan die, nahiz eta nabarmendu duen "ez dela derrigorrezkoa sindikatuen gehiengoak LEP babestea Gobernuak hura onartu ahal izateko". CCOO eta UGT sindikatuak proposamen berriaren aldeko jarrera agertu dute. Aldiz, ELAk plazen beste banaketa bat iradoki du hutsune gehien dagoen espezialitateetan eskaini daitezzen, eta LABek aurkako jarrera erakutsi du.

Nafarroako Gobernuak oposizioaren deialdia Hezkuntzako Sektoreko



Nafarroako Jauregia.

Mahaiari helaraziko dio gaur arratsaldean egingo den bileran. Datorren asteazkenean, ohiko bilkuran, Foru Gobernuak Hezkuntzako LEP onartuko duela aurreikusten da.